

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILTEKA

2001.ko
UZTAILA
51. zkia.

Urkatik Lande...



San Pedroak





Edorta Zubizarreta

Alkatearen Agurra

*San Pedro jaiak iritsi zaizkigu,
berriro ere.*

*Denon artean, ospa eta goza ditzagun,
gerorako oroigarri atsegina utziz.*

*Eskoriatzara gure San Pedro jaiak ospatzera
zatozen guztioi, gure ongi etorria.*

Gure Ametsa



Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala

LEINTZ GATZAGA

Tel./Faxa: 943 71 49 52

Ze barri?

GURE BERBETAN

Ez al da giro festatan?

Azkenean heldu dira San Pedroak. Aurten sekulako gogoa daukat herriko jaietz disfrutatzeko. Orain arte, ikasketak medio, beti izaten nuen esaminen bat tartean eta ezin izaten nuen nahi adina disfrutatu. Baina, aurten bai, aurten lan egitea tokatuko zaidan arren, nire saltsan ibiliko naiz, seguru. Ei! esaminetan zaudetenok eutsi goiari gero, zuendako beste jai batzuk ere etorriko dira eta! Besteok, herriz, egingo dugu ahalegina eskoriatzarron kasta jaietan igarri dadin, bai, hala?

Ez dakit, bada,... izan ere, azken urteetan halako desertismoa sumat-

“Jai borobila izan dadin, nahiko nuke herritarrok bertan gogotsu parte hartzea”

zen da herriko jaiak hurbiltzen direnean... San Joanetan hainbat lantegitan jai izaten dela eta, herritar ugari egiten du hanka hemendik. Ez al dituzte San Pedro jaiak gogoko? Beno, bakarren batzuk bueltatzen dira horregaitio. Hala ere, jendearen falta sumatzen da. Agian, ez horrenbeste gaueko festa giroan, inguruko herrietatik jende dezente hurbiltzen delako baina, bai, egunean zehar ere izan behar lukeen festa giroan. Izan behar lukeen diot, bai, gure herrian kosta egiten zaigulako eguneko festa giroari eustea. Eta gaueko giroari dago-kionean, hau da marka, bertakoak baino kanpokoak jai zaleagoak...nola liteke?

Urtero, Jai batzordekoek egiten dute euren ahalegina guztion atsegingarri diren jaiak antolatzen. Aurten ere, egitarau mardula prestatu dute, ikuskatuko zenuten honezkeror. Berrikuntzak badira tartean, eta, behintzat, itxuraz, oso interesgarriak dirudite. Bestalde, azken urteetan arrakastatsu izan diren ekitaldiei ere egin zaie merezi duten lekua. Horra hor, domekan izango dugun Euskal jai, aurten hirugarren urtez ospatuko dena. Nire iritiz, jaietako egunik ederrena izaten da hauxe eta badut motiborik horrela pentsatzeko. Izan ere, Euskal jai egunean, bai, esanenezake jai egunez bizi dugula eskoriatzarrok. Nahiz eta aurreko gauean parranda egin, goizean kale-ira irteten dugu eta eguerdi parterako jai giro polita izaten da plazan sagardo kupelen inguruan. Aurten ere jai borobila izan dadin, nahiko nuke herritarrok bertan gogotsu parte hartzea. Baina, ez egun horretan bakarrik. Jaiak irauten duten artean, izan dadila festa giroa nagusi!

Besterik barik, guztiok jaietan parte hartzera gonbidatzen zaituet, herriko jaietara guk geuk jarriko diegu eta merezi duten gatza eta piparra. Ondo pasau San Pedruek!

Lorea Agiriano

“Euskal Jai egunean, bai, esanenezake jai egunez bizi dugula eskoriatzarrok”

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Eduarne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale


LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ITA
janari denda

San Pedro kalea, 3
ESKORIATZA



bedardenda
Tfnua.: 943 714327
ESKORIATZA



Eskoriatzako Udala

Don Fernando plaza, 1

UDALETXEA	943 71 44 07
ALKATETZA ETA BULEGOAK	943 71 45 32
GIZARTE-LAGUNTZAILEA	943 71 31 36
KIROLDEGIA	943 71 53 28
KULTUR ETXEA	943 71 46 88
LIBURUTEGIA	943 71 31 35
UDAL EUSKALTEGIA	943 79 21 68
MUSEO ESKOLA.....	943 71 54 53
FAXA	943 71 40 42




Baserritar eta artisauen feria arrakastatsua

Arrakastatsua gertatu da aurten ere baserritar eta artisauen feria. Aurten seigarren aldiz antolatu da eta ikusmin handia sorrazazi du. Parte hartzea ere nabarmentzekoa izan da. Hona hemen ferriako irudi azpimarragarrienak, Ander Gillenea argazkilariak hartutakoak.



Era askotako lorak, udaberrian ezin plitagoak.



Geure baserrietan egindako gazta ederrak dastatzeko aukera ere izan zen.



Neska-mutikoen egindako txorimaloak ere ferian izan ziren.




Oihal dotoreak, baserriko emakumeek eginak.

Ikurrin dantzak ikusmin handia sortu zuen.



Hnos. SAJERAS, C.B.



**MARGOGINTZA
DEKORATIBO ETA INDUSTRIALA**

San Pedro, 14 behea
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Faxa: 943 71 47 28
Mobila: 608 92 11 18

Santa Ana
gozotegia



Santa Ana, 7
Tel. 943 71 52 36



MIRVAT

MIRVAT S. Coop. Ltda.

Aingeru ibiltokia, 41
20540 ESKORIATZA

Tel.: 943 7145 06

Fax: 943 71 50 05



Intxaurtxueta auzoan ere sekulako jaiak antolatu dituzte: haurrek primeran igaro zuten saku karreran...



...eta baita autoetan ere. Hauek bai gidari onak.



Axtroki elkartekoak piztu dute aurten San Juan sua, elkartearen X. urteurrena dela eta. San Juan eguna ere eurek antolatzen dute urtero. Txorimaloa, Tortolis, ludotekako umeek egin zuten.



Luis Ezeiza ikastetxeoak ere jai giroan murgildu ziren ekain hasieran. Ikasturte amierako jaietan, ikasle, irakasle eta gurasoek, denek, hartu zuten parte.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltokia, 3/ Tel.: 71 31 29/ Eskoriatza 20540

**TOKI
ALAI
TABERNA**
karajiloetan
espezializatua!!

Tel.: 71 47 29



DORLETA

Aranburuzabala, 22
Tfnoa.: 71 51 20

San Pedroak

Jai egitaraua

Eguena 28

- 19:00** Parrokiako abesbatzak, lau ahots mistotan, H. Eslavaren "Salvea" abestuko du San Pedro elizan.
- 19:30** *Jaiei hasiera emango dien txupinazoa.*
- 19:35** Musika Eskolako Bandaren kalejira.
- 22:30** Nagusien danborrada.
- 01:00** Zaragozana Pirotekiaren eskutik, Suzko errobera ikusgarriak. Kanposantutik botako dira.
- 01:15** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin herriko plazan.

Egubakoitza 29

- 09:00** Herriko txistulariekin kalejira.
- 11:40** Elizbira (Parrokia, Jose Arana, Plaza, San Juan Kale, Parrokia).
- 12:55** Txistularien laguntzarekin Udal Korporazioa San Pedro parrokiara joango da.
- 12:00** San Pedro elizan Mesa Nagusia. Parrokiako Abesbatzak Perosiren "I. Pontifical" eta H. Eslavaren "Tu est Petrus" lau ahots mistotan abestuko ditu.
- 13:15** Musika Eskolako Bandaren kontzertua herriko plazan.
- 18:30** "Kupeletan Erronka" Gorosarri plazan. Trikiti, bertso eta dantza aldiberean uztartzen dituen ikuskizun paregabea.
- 20:00** Escala 2000 orkestrarekin dantzaldia herriko plazan.
- 22:30** Pilota partiduak frontoian. Lehen partidua: Zabala eta Auxkin, Xala eta Iñurategiren aurka.

Bigarrena: Titin eta Goñi III.a, Etxaniz eta Lasaren aurka.

- 23:00** Dantzan jarraituko dugu, Escala 2000 orkestrarekin.
- 00:30** Zezen suzkoa plazan.

Zapatua 30

- 11:00** Pilota partiduak.
- 12:00** Herriko hildakoen aldeko meza.
- 12:30** Haurrentzako ikuskizun paregabea, Hotzmuga taldearekin Herriko plazan.
- 13:30** Trikitilariak.
- 16:30** X. Mus Txapelketa Gernika plazan.
- 17:30** "Bike Trial Show" trialsin erakustaldia.



- 19:30** Haurren danborrada.
- 22:30** "Ekaitzaren Garrasia" ikuskizuna Gorosarri plazan. Euskal kultura tradizionala munduko beste kultura motekin nahasten dituen ikuskizuna.
- 23:30** Dantzaldia Kiñu taldearekin herriko plazan.
- 00:30** Zezen suzkoa.

Domeka 1

- 09:00** Herriko txistulariekin kalejira.
- 12:45** Kriskitin dantza taldearen eskutik "Alardea" edo "Errebonbiloak" Herriko plazan.
- 13:15** "Liñu dantzaren estanpa" Gorosarri plazan.
- 14:30** Herri bazkaria Herriko plazan.
- 16:30** Txiste kontalaria Herriko plazan.
- 18:00** Patxaranga txarangari ongi etorria eta poteoa.
- 20:00** Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira txarangaren laguntzaz.
- 23:30** Dantzaldia Urgabe taldearekin.
- 24:00** "Iribarko Ingurutxo" denok dantzatzeko Herriko plazan.
- 24:10** Jai bukaerako traka eta bandera jaitsiera.
- 24:30** Dantzan jarraituko dugu Urgabe taldearekin. Egunean zehar haurrentzako parkea egongo da Intxaurtxueta plazan.


Zapatua 7

- 15:00** San Pedro jaietako V. auto krossa Ederlan parean.



**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura



ESKORIATZA

**RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."**

Denda:
Santa Ana, 17
Tfnoa-Faxa: 943 714165
Tailerra:
Santa Ana, 12
Tfnoa-Faxa: 943 714112

Golo
gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

Mario Padilla

Txistulari bandako burua

Aurtengo San Pedroetan ere herriko txistulariek jai egunak alaituko dizkigute. Alkate soinua, kalejirak, alborada... eta noski etxez etxe ere joango dira San Pedro egunean. Zortzi edo hamarreko taldea ibiliko da zeregin horretan Mario Padilla buru dutela. Lehenengo Otxandion eta gero Eskoriatzan, Mariok urte asko eman dizkio txistuari eta osasunak laguntzen dion artean ez dauka uzteko inolako asmorik.

San Pedroetan zer egingo duzue txistulariok?

San Pedro bezperan jaiei hasiera emateko erraldoi eta buruhandiekin aterako gara kalera. Hurrengo egunean, goizean, San Pedrori alborada joko diogu zortziko batekin eta, ondoren, udalbatzarrarekin meza nagusira alkate soinua joaz sartuko gara. Lehen, San Pedroekin prozesioa egiten zen eta azkenengo bi urteotan ohitura berreskuratu da. Horrela, bada, San Pedro bandarekin batera herriko plazara ekarriko da eta hemen agurra dantzatuko zaio txistularien laguntzaz.

**Etixerik etxe ere ez al zarete joaten txistua jotzen?**

Bai, hala da. San Pedro egunez, bazkal ostean, etxerik etxe alborada jotzen joan izan gara. Aurten ez dut uste ni neu joango naizenik, urteak aurrera doaz eta gero eta gehiago nekatzen naiz eta.

Nondik dator ohitura hau?

Antzinako ohitura da eta Otxandion ere bazegoen. Garai batean, herriko jauntxo edo dirudunen etxeetara joan ei zen. Aretxabaletako Demetrio Iriarte txistulariak kontatu zidanez, lehen, Urkulu inguruko baserrietako jabeek bakarrik joteko ohitura zegoen baina bera etorri zenean etxe guztietatik hasi zen pasatzen. Ni neu ere, hasieran, alkate eta zinegotzien etxeetara besterik ez nintzen joaten baina gaur egun bereizketarik egin barik etxe guztietatik pasatzen saiatzen gara.

Lan handia izango da bada?

Bai, bazkal ostean bi-hiru ordu pasatzen ditugu eta hala eta guztiz ezin bukatu. Goiko kaleetik hasi eta eliza ondoraino etortzen gara, ondoren Dor-

leta auzoan joteko. Neska mutikoak bigarren egunean ere joaten dira hasi plaza ingurutik eta Arana kaleraino kanposantu azpiko etxeetatik pasatuz.

Jendeak borondatea ematen du?

Bai, bai. Gazteak ilusio handiz joaten dira txistua jotera, bazkal ostean bakoitzak lau-bost bat mila pezeta atera ditzake eta.

Zenbat txistulari ibiliko zarete San Pedroetan?

Ekitaldi batzuetara gehiago etorriko dira eta beste batzuetara gutxiago baina zortzi edo hamar bat ibiliko gara. Egia esan, nahiko gaizki gabiltza entsaiotarako batzeko orduan, gazteenak, Almenen dabilta ikasten eta azterketak direla eta ezin dute astirik hartu.

Urtean zehar ekingin gehiago ere egingo dituzue?

Bai, udalarekin batera adostutako programa ateratzen dugu urte guztiko ekinginekin. San Pedroen ostean uztaileko igande guztietan goizeko 9etan pasakailea joko dugu San Inazio eguna arte. Euri zaparradaren bat edo ez bada, behintzat, igandero aterako gara eta iraillean Gatzagako jaietan ere izango gara. **Noiz arte txistua jotzen jarraitzeko asmoa?**

Osasunak laguntzen dit eta ahal den artean behintzat jarraitu egingo dut. Kalejiran eta auspoa bete ezinik ibiltzen naiz batzuetan. Horregatik, azken aldian gazteak putz gehien behar dutenak jotzen jartzen ditut eta nik samurrenaz jarraitzen diet.

“Osasunak laguntzen dit eta ahal den artean behintzat jarraitu egingo dut”

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación



Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30

eta 17:00- 20:00

Asier Errasti

IRLANDA, BERE SUSTRAIEI GOGOR LOTUTAKO HERRIA



Orain dela ia hiru hilabete heldu nintzen Dublinera, ingelesa behin betiko ikasteko asmoz. Aurretik ere bi aldiz izanda nengoen bertan eta azken bisi-talditik urte batzuk igaroak izan arren, aurkitutakoak ez ninduen gehiegi harritu. Hori bai, esan beharra dago azken urteetan izugarritzko hazkunde ekonomikoa bizitzen ari dela Irlanda eta hori nabaria dela bertan, batez ere Dublin hiriburuan. Azken hamarkadan Irlandak izandako hazkundeak gainera aldaketa nabarmena ekarri du: mendeetan zehar irlandarrak izan badira bizitza hobe baten bila mundu guztian zehar barreiatu direnak —batez ere Erresuma Batura, Estatu Batuetara eta Australiara jo izan dute irlandarrek lan bila—, azken urteetan

Europa Ekialdeko herritarrak eta Afrikako hainbat herrialdeetakoak dira bertara heltzen ari direnak. Horrez gain, Dublinera ingelesa ikastera mundu guztitik urtero milaka eta milaka ikasle heltzen direnez, gero eta nabariago, kultur eta arraza ezberdinetako elkargune bihurtzen ari da Irlandako hiriburua.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa azken urteetan behin eta berriz entzuten den “globalizazioaren” eragina gero eta nabarmenagoa izatea Irlandako gizartean ere. Ildo horretan, kontuan hartzekoa da batez ere Erresuma Batuekiko gertutasuna, komunikabide britainiarren eragina adibidez, uka ezinezkoa baita Irlandan. Hori bai, “globalizazioak globalizazio”, ez izan zalantzarik bere sustraian ondo

errotutako herria dela oraindik ere irlandarra. Kirol arloan adibidez, futbol gaelikoa eta *hurlinga* bezalako herri kirolek izugarritzko indarra mantentzen dute, milaka eta milaka jarraitzaile dituztelarik Irlanda osoan zehar. Hala, zalantzarik gabe, Kirol Gaelikoen Elkartean (GAA) bildutako bi kirol horiek dira herrialdeko garrantzitsuenak, futbola edota errugbia ere bigarren mailan gelditzen direlarik.

Musika arloan ere, herri musikak indar handia izaten jarraitzen du eta non nahi aurki daitezke musika irlandarra entzuteko aukera ematen duten *pubak*. Kasu askotan, gainera, tabernetan elkartzen diren auzokideak beraiek dira musikariak. Hala, bakotzak bere musika tresna eramaten du *pubera* eta lagunartean, izugarritzko

FAGOR



ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingeruguarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

kontzertuak eskaintzen dituzte, giro paregabea sortuz. Zalantzarik gabe *pub*etako giro hori da Irlandan derri- gor ezagutu behar den gauzetako bat. Izan ere, irlandarrek kanpotarrei egin ohi dieten harrera ona *pub*etan ere igarri daiteke. Kontuan izan lagunarte- ko giroa oso gogokoa dutela irlandar- rrek eta hala, segituan hurbiltzen zaio- la norbait bisitariari garagardo *pinta* baten inguruan berriketan haritzera. Aipatutakoaren erakusle, oso adie- razgarria da *pub* askotan erabiltzen den esaera: "Hemen ez dago ezeza- gunik, oraindik ezagutu gabeko lagu- nak bakarrik dira". Era berean, esan beharrik ere ez dago, irlandarrek beti topatzen dutela *pinta* baterako aztia. Hala, mundu zoro onetako erritmo fre- netikotik ihesi, irlandarrek beti dute *pinta* bat edateko edota lagunartean biltzeko denbora. Lehendabizi lehen- dabizikoa eta gero gerokoak...

Ulster, behin betiko konponbidera abiatzen?

Irlandari buruz hitz egiterakoan, ezinbestekoa da baita ere Ulsterreko egoeraz aritzea. Izan ere, Irlanda mun- duan zerbaitegatik ezagun egin bada, mendeetan zehar britainiar koloniza- tzaileen aurka aurrera eramandako borrokagatik izan da. Irlanda "batu eta askearen" aldeko borroka gainera, gure egunetarako heldu da, 1922an uharteak bizitako zatiketaren ondo- ren, Ulsterreko bederatzi lurraldetatik seik oraindik ere britainiarren esku jarraitzen baitute. Azken hamarkada-

"Errepublikarrek Irlanda batua ikusteko itxaron beharko dute baina bake akordioen ostean, hamarkadetako amets hori epe ertainean bete daitekeela dirudi"

ko bake prozesuak aldiz, gauzak asko aldatu ditu Ulsterren eta hori nabaria da egun bertan bizi den giroan. Ozto- poak oztopo eta Ulsterreko komuni- tate nazionalista eta unionistaren — katoliko eta protestantearen— adis- kidetzeak oraindik ere luze jo duen arren, auzia konponbidean izan dai- tekeela dirudi. Errepublikarrek Irlan- da batua ikusteko itxaron beharko dute baina bake akordioen ostean, hamar- kadetako amets hori epe ertainean bete daitekeela dirudi. Hori baina denbo- rak bakarrik erakutsiko du.

Hori bai, zalantzarik gabe Ulste- rreko kaleetako giroa asko aldatu da azken urteetan. Izan ere, bake proze- suaren ondorioz, ehunka presok kalea zapaldu ahal izan dute berriz ere, armada britainiarrek ez ditu jada auzo errepublikarrak patruilatzen, polizia- ren presentzia itogarria asko jaitsi da, Belfasteko *pub* errepublikarretako sarreretatik burdinsareak kendu ahal izan dituzte... Alta, azken hamarka- detako borrokaren aztarnak nabariak dira oraindik ere Ulsterren. Hala, Derryko *Bogside* auzo errepublika- rrean adibidez, non nahi ikus daitez-

ke 1972eko *Bloody Sunday* edo Igan- de Odoltsua ezagunean armada bri- tainiarrak hildako 14 auzokideak gogoratzeko muralak eta RUC poli- zia-aren egoitza ikusgarriak ere auzo- aren gainaldean jarraitzen du orain- dik. Belfasteko *Falls* auzo errepubli- karreko edota *Shankill* loyalistako paretak ere muralez josiak daude; batzutan 80. hamarkada hasieran gose greban hildako preso errepublikarrak gogoratzen dira, besteetan, paramili- tar loyalistak dira nagusi. Era berean, bi auzoen arteko "bakearen harresiak" oraindik zutik jarraitzen du eta agian, hori izan daiteke Ulsterren arazo askok oraindik ere konpontzeke jarrai- tzen dutenaren adierazlerik argiena. Hori bai, noizbehinka "Ulsterreko auziak" eztanda egiten jarraitzen duen arren, baliteke behin betiko bakea eta noski, Irlanda batua, inoiz baino ger- tuago izatea.



**REPARACIONES
LENIZ, C.B.**

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061



**ALTUNA
harategia**

Etxean hazitako okela

San Pedro, 3 • Tf. 943 71 41 64



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

**San Pedroetan herrian gelditzen zara jaiez gozatzeko?
Zertan hartuko duzu parte?**




**Ibon
Aranburuzabala**

Urtero gelditzen naiz, herriko jaietan egon behar delako. Danborradan sukaldari ariko naiz eta, gero, auto krossean antolatzaile eta parteartzaile moduan ere bai.



**Ixa
Iriarte**

Bai gelditu egiten naiz. Gustuko ditut jaiak. Auto krossean izango naiz seguruen, oso ondo egoten da eta. Gero, kaleko beste hainbat ekintzatan ere bai.



**Luis Martinez de
Hidalga**

Jaietan alde egitea ez dut gogoko. Nahiago dut hemen geratu. Pilota partiduetara joango naiz eta musean ere egingo dut. Beti bezala, ondo pasako dut.



**Asun
Arzaburu**

Beti gelditzen gara eta aurten ere bai. Gainera, orain arte tabernan lan egin dut, beraz, jaiez topera disfrutatzeke asmoa daukat aurten. Jai giroan murgilduko naiz.



**Garbiñe
Uribe**

Jeneralean alde egin izan dut, baina orain gelditu egiten gara ume txikia dugulako. Danborradan, herri bazkarian eta umeen jolasean ibiliko gara. Ahalik eta ondoen pasatzen saiatuko gara.




**Goio
Uribe**

Bezperara arte lan egin behar dudanez, derrigor geratu behar. Tabernatan ibiltzeko ohitura daukat, txikiteoan. Giroa ez da beste mundukoa, baina tira. Pilota partiduak ere ikusiko ditut.



Arana, 5
Tel. 943 71 45 78

Santa Ana, 23
Tel. 943 71 53 82



ZUBIA
harategia eta
urdaitegia

Santa Ana, 11 • Tel.: 943 71 42 02



- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingerugardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Unibertsitate-Irakasle eskolako kurtso amaierako jaiaren gaupasaren ondorioz, herria hankaz gora azaldu zen...

Gaupasa ikastaroak

Edan eta gero, ahobero. Hainbat sute piztu eta gero, bonbero. Hamaikatxo gauza ikusteko jaiak gara benetan. Nork esango zidan niri neure burua orain nagoen atakan ikusi beharko nuenik. Enfin. Kontua da herrian izan dugun Unibertsitate-Magisteritzakoen azken jaiak, gau jaiak, edo denadelakoak, zeresan ugari eman duela. Eta datozen sanpedruetarako egonezina sortu ere bai. Ez jaiak berak, baizik eta jaiaren ondorenak. Aipatu gaua bizi izan ez zuten herri-tarrengan gehien bat. Izan ere gaua bizi izan genuenok momentu hartan ez genion gero txutxumutxubide izan direnei erreparatu. Eta biharamunean ez geunden ezeri erreparatzeko egoerarik aproposenean. Beraz, ezin ba entzundako guztiak ez ukatu ez baiez-tatu. Are gutxiago, ezkutatu. Hala izan bazan, onartu beharko kalabazan.

Dena dela 'jai basatiaren' ondorenei erreparatzen badiogu, denok bat etorriko gara esaten badugu ez zela erremediorik ez duen ezer gertatu. Gauza bera gertatuko zaigu, bertan ibili ginenok alde aurretik ez geneukan eta eskolak eman ezin digun tresna berri bat dugula botatzen badugu. Tresna hori zein den? Eskarmentua hain zuzen. Izan ere, Humanitatekook humanoak garelako erakutsi genuen, eta humano gazteak janzten gaituen bertuteen zerrenda luzean ez da eskarmentua azaltzen. Behar bada horregatik portatu ginen hain baldar, anker eta zakar (beste adjektibo batzuk ere entzun ditut baina ez datozkit burura, lastimie).

Irakaspena ez da alperrikakoa izango. Gau hari esker eta hainbat eskoitzarren predikuei esker orain gizaki osoagoak gara. Edaten eta hartu beharrekoak hartzen bagenekien, orain badakigu hartutakoan giza-legez, hiritartasunez jokatu behar dugula. Kostata baina ikasi dugu, baina atzetik datozenak?. Ez legoke gaizki Erretegi erretoreari -erre ke erre- borondate oneko pertsonaren batek fakultate barruan gaupasa klase praktikoak antolatzeko ideia ematea. Herriko gazteei ere irekiak, noski. Bueeeeno, eta ez hain gazteei ere bai, inoiz ez da berandu ikasteko eta.

Ontzia birziklatu

Hemen ditugu! Iritsi dira! Porfin, esango dute bat-zuek. Jai malapartatuak, erantzungo besteek. Kontuak kontu, urtea pasa dela eta bertan ditugula, beste behin ere, Sanpedruak.

Ohi bezala, txupinazoak eta kabezuduek emango diote hasiera jaiari, eta behin martxan jarritz gero, ekintza eta ospakizun andana amaigabea izango dugu domekara artean: Salbea, nagusien danborrada (honetaz zer bait idaztea ere ez litzateke ideia txarra izango, ez horixe), musika saioak plazan eta txosnetan, meza nagusia, karreraren bat, pilota partiduak, haurren danborrada (nagusiena baino itxura helduagoa ematen duena, zalantzarik gabe)... Hamaikatxo ikuskizun egun alai batzuk igarotzeko.

Bada, ordea, arazotxoren bat, aurtan, gainera, jaiak asteburua bete-betean harrapatzen duenez, areagotuta iritsiko zaiguna. Egia esan, eta nire gusturako, arazo bat baino gehiago dute jaiak, baina esan bezala, bada bat hemen propio hiruzpalau berba idaztea pena merezi duena. Eta pena merezi duela diot benetan penagarri izaten delako jaiaren biharamunean kaleek erakusten duten itxura: txiza-parrastadak nonahi, alkoholaren gehiegiak eragindako txala-mila-koloredun horietako ugari, humanoide neuronabakardun batzuek eragindako triskantzak herriko kaleetako tresnerian, eta alde guztiak, bazter eta kantoi, kale eta plaza, kristalez eta plastikozko edalontziz beteta. Hain zaila da basoak eta garagardo botilak tabernara itzultzea? Hobe da edozein bazterretan bota eta atzetik datorren norbaitek sekulako ebakia egiten badu, hor konpon? Botaz gero, zergatik ez birziklatzeko kontainerretan? Deskuidatuz gero, gainera, bazterrik bazter guztia kakazten dutenetako batzuk ekologista paparra-txapazbetetako horietakoak dira, ahoa (eta kamiseta) aldarrikapen ekologistez bete jotafuego praktika kontsumista itsuenean murgilduta dabilzanak, eta guztia borobiltzeko, erabiltzen duten bidrioa eta plastikoa hor nonbait jareinda.

Ba, hori. Jaixak ondo pasau, eta gogoratu: "ontzia, alperrik galduta baino hobeto, birziklatuta".

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiak ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

Aizkolariak deman



Hona hemen orain dela 40 bat urte Herriko plazan ateratako argazkia. Gaur egun oso gutxitan ikusten den irudia, orduan oso ohikoa zen. Herri kirolek ikusmin handia sorrarazten zuten eta demak bazuen jarraitzailerik, plaza bete beteta agertzen da eta. Argazkia noiz ateratakoa den jakiterik ez dugu izan, baina negu partekoa dela antzeman daiteke, jantziei eta arbolei erreparatu gero. Nor baino nor gehiago ari direnen izenak ere ez dakizkigu. Hala ere, jaietan gaudenez, orduko hainbat jaitako ohiko irudia ekarri dugu txoko honetara.

TELEFONOAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

Larmanta

*Lentzeria eta
Umeen moda*

Gaztañadui, 21
Tel.: 943 71 53 87
ESKORIATZA
(Gipuzkoa)

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Aranburuzabala, 7	Mitarte, 1	Loramendi, 1
ESKORIATZA	ARETXABAETA	ARETXABAETA
Tel.: 943 71 49 04	Tel.: 943 77 13 79	Tel.: 943 79 18 33



Gaztañadui, 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA
(Gipuzkoa)

Taberna eta jatetxeen gida



LAGUNAK
DASTALEKU
Tel. 943714063
ESKORIALZA

ILARGI
taberna

Intxaurtxueta, 7
Tel.: 943 71 51 06

AKEITA
taberna

- kafea
- pintxoak
- ogitartekoak

Santana, 23

IRRINTZI
taberna



Hidalga, 5

MIRENTXU




Hidalga, 10
Tel.: 943 71 41 67

BENTA-MOTZ

eguneroko
menua
goizeko
6etatik irekita

Gaztañadui, 21
Tel.: 943 71 48 22

CIPRIS
Pub



Aranburuzabala, 8
ESKORIALZA

TXALAPARTA
taberna



Aranburuzabala, 26

MAULANDA
JATETXEA

Maulanda auzoa
ESKORIALZA

Tel.: 943 71 47 20
943 71 54 56

ALDATZ
taberna

Musika ona
entzun dezazun

Tel.: 943 714171

OTZETA
taberna



Aranburuzabala, 7
Tel.: 943 71 55 07

COMPOSTELA
TABERNA

olagarro
espezialitatea

San Pedro, 12
Tel.: 943 71 48 70

AITZORROTZ g a r a j e a



Tel.: **943 71 42 94**

Gasteizko bidea, z/g
ESKORIATZA

AINGERU gasolindegia

- Orduategia: 07:00-23:00
- Autoentzako garbiketa tunela



Tel.: **943 71 49 81**

Gasteizko bidea, z/g
ESKORIATZA